

San Juan Artia

> Jerardo Elortza

Ume-umetatik erakarri nau San Juan Artia izeneko parajeak. Sasoi hartan urruti eta aparte zegoen leku misterio-tsua zen guretzat; beldurgarri samarra ere bai: *Ondo portaitten ezpazara, San Juan Artixara morroi bialduko zaugu!* edo antzekoak esaten zizkiguten gure haurtzaroan. Hango bizilagunak ezagutu genituen 1950eko hamarkadaren erdi aldera baserria hustu aurretik.

Gerora jakin genuen garai bateko ermita eta benta zahar hark garrantzia handia eduki zuela Oñatiko historian; gure herritik Araba aldera joateko, handik pasatu beharra zegoela, alegia; eta goialdeko baso eta mendi bakarti haietan ez zela beste aterpe eta babeslekurik, batez ere neguko elurte gogorrek nagusitzen zirenean.

Aspalditxotik neukan susmoa toki hori antzinako bizilekua izan zitekeela. Oñati, Erdia Arozaz geroztik, Ipar Arabako jauntxo gebaratarren uztarriak lotzen zuen. Hori dela eta, San Juan Artia eta Katilluiturrin makina bat mandazain eta bidazti ibiliko zen aurrera eta atzera, gizaldi askotan. Orduan alda-



Kapirixo taldeko kide batzuk San Juan Artian.

pak ez ziren eragozpen batek bestera igarotzeko.

Horregatik, asko poztu nau Iosu Etkezarraga arkeologo donostiarrak San Juan Artian iaz egindako kata batzuetan XII. mendetik XIV.era bitarteko aztarnak aurkitu dituela jakiteak. Udazken honetan egitekotan den indusketa sakonagoan gizaldi ilun horietako gure historia gehixeago argituko duten lekukoak agertuko direla pentsatzen dut. Ea egia den.

Duela hogeitau urte pasatxo igoginen Kapirixo elkarteko kide batzuk San Juan Artia, Kalahorrako bide zaharrean gora;

BISITA GIDATUA URRIAK 12

> Iosu Etkezarraga arkeologoa Artian egiten ari den indusketa lanak bertatik bertara ikusteko bisita gidatua egingo da urriaren 12an, Natur Eskolako kideek gidatuta. Hitzordua 9etan plazan.

inguru haiek zehatz-mehatz ezagutzen zituen Bitoriano Gandiagaren gidaritzapean, hain zuzen ere. Eta gogoan dut, benta-ermita-baserriaren hondakinen aurrean, orduan gure artean egin genuen komentarioa: *San Juan Artixak merezi dau, ba, azterketa on eta sakona egittia!* Iritsi da, zorionez, aukera hori.

COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Aranzazuko Armi Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 7189 707 ✉ oinbro@coinbroker.eus
🌐 www.gizarte2000.coinbroker.eus

TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA